



Larrialdi
plana

gasteiz

*norabide berri
bati ekiteko*

ehbildu



1.	Sarrera	4
2.	Testuinguru ekonomikoa	4
	2.1. Sarrerekin zer egin?	5
	2.2. Gastuekin zer egin?	6
	2.3. Ondorioak	7
3.	Jaiki Gasteiz Larrialdi plana: premiazko neurriak	8
	3.1 Osasuna eta ongizatea zaindu	8
	3.2 Babes Soziala handitu	9
	3.3 Ekonomiaren susperraldia piztu	11

1. SARRERA

Aparteko garaiak bizi ditugu. Larrialdi garaiak. Hilabete batzuk igaro dira Gasteiz kolpatzen hasi zela Covid-19 gaixotasunari lotutako pandemia globala. Lazgarriak izan dira ondorioak: 350 gasteiztar baino gehiago hil ditu gaixotasunak, eta beste milaka kutsatu ditu, horietako askok egoera larriak igaro dituztela. Larrialdiak errealitate gordin bat azaleratu du, sarritan bermatutzat jotzen duguna: osasunik gabe ez dago bizitzerik. Osasunaren zaintza eta arreta ezinbestekoak ditugu, eta horien defentsak izan behar du pandemiari erantzuteko lehen zutabea.

Modu arduratsuan jokatu behar izan dugu, elkarri zaindu ahal izateko. Herritar gisa onena ematen erantzun dugu. Larrialdi globalak geure jarduera sozial eta ekonomikoen etenak behartu ditu. Ez zaigu sekula gertatu halakoak bizi behar izatea. Gaixotasunaren hedapena geldiarazten saiatzeko borrokan beharrezkoak izan dira neurri guzti horiek. Orain, osasun krisiari orpoz orpo jarraituz, krisi sozial eta ekonomiko baten mehatxua gainean dugu.

Ez diogu sekula horrelako krisi bati aurre egin, egia da, baina ezin ditugu iraganean egin-dako akatsak errepikatu. Ez ditzagun krisi honen iragarpen txarrenak egi bihurtu. Ez dezagun osasun krisi bat depresio handi bat bihurtu. Aparteko garaiek aparteko erantzunak eskatzen dituzte. Garaiz gaude.

2. TESTUINGURU EKONOMIKOA

EH Bilduren ustez, udalak egoera berriari erantzuteko beharrezkoa da garapen integral bat egitea. Planteamenduak finantzaketa nahikoa bermatu behar du zerbitzuei eta premia berriei erantzuteko, luzera begira udalaren jasangarritasun ekonomikoa kolokan jarri gabe. Bide orri honek fiskalitatearen bi alorrak aintzat hartu behar ditu: diru sarrerak eta gastuak.

Hau ezin da izan 2008an hasitako krisiaren errepikapen bat: krisia ezin da ahulenen bizkarrean erori. Lehen erantzunak izan behar du kolpea gehien jasan dutenak laguntzea, baina, aldi berean, krisi honen irteeran nolako hiria nahi dugun hausnartzeko eta bideratzeko unea ere bada.

2.1- Diru sarrerekin zer egin?

EH Bilduren ustez, beharrezkoa da diru sarreraren erorketari aurre egiteko eskura dauden tresna guztiak baliatzea, kaltea ekonomikoak arintze aldera:

- lazko soberakin orokorra erabiltzea
- Gasteizko Udalak zorpetze propiora jo behar du, legealdi osorako baliogarria izango den bide orri baten barruan
- Arabako Foru Aldundiarekin akordio bat lortu behar da FOFELeko diru sarreraren jaitsiera leuntzeko. Izan daiteke itzulpenen atzerapen bat, edo izan daiteke FEPELen bertsio gaurkotu bat. Hots, Aldundiak zorpetzera jotzea, eta zorpetze horrekin toki erakundeen baliabide jaitsiera arintzea
- Arabako Foru Aldundiak toki erakundeei ezarritako defizit, zorpetze muga eta gastu araua berrikusi eta lalgutu behar ditu
- Beste administrazioek (EB, estatua, Eusko Jaurlaritza) ireki dituzten laguntza lerroetara jotzea, udal politikekin bateragarriak diren erabilerak dituzten neurrian

Honekin batera, beharrezkoa da zerga eta tasa sisteman diru sarrerei eusteko estrategia bat garatzea, lehentasun batzuekin:

- Zergak arautzeko eskumena Arabako Batzar Nagusien eskuetan dago. Ezinbestekoa da erreforma bidezko eta progresibo baterako urratsak egitea. Besteak beste, covid tasa bat eta aberastasun handiei zerga bat jarri behar dira indarrean

- Ez da onargarria diru sarrerak modu arbitrario eta justifikaziorik gabeko batean murriztuko dituzten neurriak ezartzea: esaterako, sozietate zergari %60ko kenkaria jartzea mundu guztia-arentzat, inolako mailaketarik gabe, eta errenta edo sarrera mailak aintzat hartu gabe. Erabaki arbitrario horien ondorioa toki erakunde guztiok pairatuko dugu, Gasteizko Udala barne
- Udal zergei dagokionez, ezinbestekoa da bestelako diru iturri batzuk bilatzea. Horretarako momentua da argindar eta gas enpresa handiei tasa bat ezartzeko, udalerriko lurzorua eta airearen okupazioa dela-eta

2.2- Gastuarekin zer egin?

Aurrekontua berrikustea beharrezkoa da. Krisi honen ondorioz jarduera eta zerbitzu batzuk ezin izan dria eman, edo aurrerantzean ere asko ezingo dira eskaini. Bestalde, premia berriak sortu dira osasungintzan eta alor sozioekonomikoan. Aurrekontuek, orain dela hilabete batzuk onartu zen modura, ez dute honezkero balio. Orain, aurrekontuak berrordenatu behar dira. Aurrezkiak non sor daitezkeen atzeman, eta, aldi berean, sortu diren behar berriei erantzuteko dirusail berriak onartu, martxan dauden batzuk handitu, eta beste batzuen erabilera goitik behera aldatu beharko da.

EH Bilduren printzipio orokorrak gastuari buruz honakoak dira:

- Udal langileei ez zaizkie murrizketarik ezarriko
- Politika sozialetan murrizketarik ez da ezarriko, eta, ahal den neurrian, dirusail batzuk indartuko dira, bereziki ahulenak babesteko laguntza zuzenak
- Osasunari eta larrialdiari lotutako gastuak indartu behar dira, bigarren olatu baten arriskuari aurre egiteko
- Elkarrekin eta gizarte eragileekin egiten diren itunetan ez da murrizketarik ezarriko, bereziki dirusail horrekin urte osorako jarduerak finantzatzen duten erakundeen kasuan

- Aldiz, ekitaldi edo babesletza zehatzei lotutako itunak berrikusiko dira, ulertuta horietako asko ez direla egingo, edo, eginda ere, daukaten finantzaketa maila ez dagoela justifikatuta
- Enpresa publikoen aurrekontuak berrikusiko dira, eta horiek ere ahaleginaren parte izango dira
- Suspertze ekonomikorako dirusailei eutsiko zaie, eta beste erabilera zuten dirusailetatik ere finantzaketa eskuratuko da. Bereziki, enplegua, merkataritza, ostalaritza, kulturgintza edo turismo alorrari dagozkionak. Hori bai, dirusai horiei erabilera posible berriak planteatuko zaizkie.
- Inbertsioei dagokionez, proposamen orekatua planteatuko da. Atzeratu daitezkeen inbertsio berriei ekin gabe, baina udalerrria paralisi osora eraman gabe ere. Zentzu horretan, adjudikatuta eta martxan dauden proiektu nagusiekin aurrera jarraituko da: Gasteizko Antzokia, BEI, Koroatzeko proiektua eta Salburuko tranbia.

2.3- Ondorioak

Aipatutako neurri guztiak martxan jarrita, 20 milioi euro arteko diru poltsa bat eskuragarri egon daiteke, Gasteizen sortu diren premia eta behar berriei erantzun ahal izateko. Kopuru hori handiagoa izan daiteke, erabilera jakin bat aurreikusita duten dirusailak premia berri horietara bideratzea erabakitzen bada. Gasteizen EH Bildu eragile ekonomiko, sozial eta kulturalekin bilerak egin ditu azken asteotan, egoeraren diagnostikoa partekatzeko asmoz.

Iritzi horiek jasota, larrialdiari aurre egiteko neurri sorta bat aurkeztu du, Jaiki Gasteiz planaren lehen fase modura. EH Bilduk proposamen hau mahai-gaineratuko du gainerako indar politikoeekin eta eragile sozioekonomiko eta kulturalekin partekatzeko asmoz, eta egoera onbidatzen laguntzeko helburuarekin.

Hogei bat neurri dituen lehen sorta honetan identifikatu diren hiru premia beharrezkoenei aurre egiteko ekintzak biltzen dira: osasuna, babes soziala eta ekonomiaren suspertzea. Hain zuzen ere, EH Bilduk 15 milioi euro bideratzea aurreikusi du Jaiki Gasteiz planaren lehen ekintzak finantzatzeko. Osasun esparrua indartzeko 2,35 milioi euro dira, beste 6 milioi euro gizarte babesa handitzeko, eta 6,65 milioi jarduera sozioekonomikoen susperraldiari laguntzeko.

3. JAIKI GASTEIZ: PREMIAZKO NEURRIAK

3.1 Osasuna eta ongizatea zaindu

Pandemiaren epizentroa osasuna izan da eta esparru horretan egiten dituen inbertsioak indartu behar ditu ezinbestean Gasteizko Udalak. Babes ekipamenduen hornikuntza, udal instalazioetan egin beharreko egokitzapen fisikoak distantziei eutsi ahal izateko, pandemiaren eragin emozionalari aurre egiteko neurriak, edota haur eta nerabeei udan jarduera programa bat bermatzeak osatzen dute proposamenaren muina. Neurri zehatzak honakoak lirateke:

Neurria: **Babes ekipamenduen hornikuntza bermatzea**

Helburua: Bigarren olatu baten arriskuari aurrea hartzea

Inbertsioa: 1,25 milioi €

Neurria: **Udal ekipamenduak egokitzeko inbertsioak**

Helburua: Gizarte-etxeak, eskolak edo udal bulegoak egoera berrira prestatzeko dirusailak

Inbertsioa: 500.000 €*

Neurria: **Covid-19k utzitako eragin emozionalari aurre egiteko talka plana**

Helburua: Talka plan honek babes espezifikoa behar duten lau kolektibori zuzenduko zaie: haurrak eta nerabeak, adinekoak, eta buru gaixotasunak dituzten pertsonak.

Programak ildo berezitu bat izango du sektore soziosanitarioan ari diren pertsoneri arreta eskaintzeko

Inbertsioa: 250.000 €

Neurria: **Adinekoei kalera bueltatzen laguntzeko programa**

Helburua: Pandemiaren ondorioz etxetik ateratzeko beldurrez dauden pertsoneri, bereziki adinekoei, egoera berrira ohitzen laguntzeko programa

Inbertsioa: 50.000 €

Neurria: **Zaintza uda**

Helburua: Haur eta nerabeei udan aritzeko jarduera programa, babes emozionala barnean izango duena, eta aire zabaleko espazioak lehenetsiko dituen

Inbertsioa: 300.000 €

Inbertsioa guztira: 2,35 milioi €

* Indarrean dauden dirusailei erabilera berria emanez

3.2 Babes soziala handitu

Zerbitzu sozialen sisteman aspaldi kezka bihurtu zen arazoa bere gordinean azaleratu du osasun krisiak: azken urteotan egindako politiken eta murrizketen ondorioz, zerbitzu sozialei gainezka egin die egoerak, langileen ahalegin itzela eginda ere. Dramarik handiena adinekoen egoitzetan gertatu da, baina, oro har, larrialdiak ariskuan jarri ditu populazioaren sektore ahulenak eta zaugarrienak. Krisi sozioekonomikoak, gainera, herritar asko inoiz ezagutu ez duten bezala kolpatzen hasi da. EH Bilduk beti defendatu du bestelako gizarte zerbitzuen eredu baterako jauzi egin behar dela. Arretari behar duen garrantzia aitortuko dion sistema batera.

Eredu aldaketa hori gauzatu arte, edozein modutan, premiaz heldu beharreko arazoak daude eta neurri zehatzak behar dira.

Neurria: **AMUS laguntzak handitu**

Helburua: Egun ematen den ordaina igotzea, eta onuradun berriek jaso ditzaten baldintzak malgutzea

Inbertsioa: 3 milioi €

Neurria: **Eguneko egoitzak**

Helburua: Eguneko egoitzen itxierak utzitako ondorioei aurre egiteko, programak eta banakako arreta indartuko dira, eta jardueren eskaintza handituko da

Inbertsioa: 1 milioi €

Neurria: **Etxeko laguntza (SAD)**

Helburua: Itxaronaldiak murriztu, eta zerbitzuak pertsona gehiagori arreta ematea lortzeko inbertsioa

Inbertsioa: 1 milioi €

Neurria: **Bazterketaren aurkako borroka**

Helburua: Konfinamenduak etxebizitzarik gabe eta baztertuta dauden pertsonen egoera latza agerian utzi du. Baliabide gehiago bermatu behar dira pertsona gehiago artatzeko

Inbertsioa: 1 milioi €

Guztira: 6 milioi €

3.3 Ekonomiaren susperraldia piztu

Aipatu bezala, osasun larrialdiak bizitza sozial eta ekonomikoa eten du hainbat astez. Negozio ugari atek erabat itxi behar izan dituzte, edo modu oso mugatuan zabaldu. Krisiak gehien kolpatu dituenen artean daude hiritarrengandik hurbilen daudenak: merkataritzan, ostalaritzan, kulturgintzan eta beste zenbait jarduerak eragin hori jasan dute. Helburua orain galera horiek arintzea eta aldi baterako itxierak behin betikoak bihur ez daitezen laguntzea da. Hala-ber, jarduera ekonomikoa eta soziala surpetzeko neurriak hartzea beharrezkoa da.

Neurria: **Autonomoentzako eta enpresa txikientzako laguntzak**

Helburua: Itxita edo galerak izan dituzten jarduerari laguntzea. Gehienez ere 1.950 euroko laguntzak dira.

Inbertsioa: 2,5 milioi €

Neurria: **Merkataritza bonuak**

Helburua: Saltoki txikietan eta ostalaritzan erosketa egitea laguntzeko

Inbertsioa: 1,25 milioi €

Neurria: **Kultur produktuak erosteko bonuak**

Helburua: Kultur produktuak erosteko edo jardueretan gastatzeko bonuak

Inbertsioa: 400.000 €

Neurria: **Kulturgintza suspertzeko laguntzak**

Helburua: Sortzaileentzako laguntza eta beka programa berezia (250.000 €)

Artea Km 0 Gasteizko artisten erakustaldiak sustatzeko laguntzak (250.000 €)

Inbertsioa: 500.000 €

Neurria: Hirugarren sektoreko enpleguari laguntzak

Helburua: Hirugarren sektorean ari diren elkarte eta erakundeen lanpostuei eusteko dirulaguntza zuzenak

Inbertsioa: 500.000 €

Neurria: Aisialdiari lotutako gazte enpleguari laguntzak

Helburua: Udan egin ohi diren jarduerak murriztea edo bertan behera geratzea arintzeko laguntzak, gazteei zuzenduta

Inbertsioa: 200.000 €

Neurria: Saltokiak eta ostalariza egokitzeko laguntzak

Helburua: Pandemiak behartu dituen moldaketak egiten laguntzeko dirulaguntza deialdia

Inbertsioa: 300.000 €

Neurria: Zaharberritze laguntzak

Helburua: E-XXI 2018 eta 2019 urteetan lagundu gabe utzitako proiektuentzako deialdia

Inbertsioa: 1 milioi €*

Guztira: 6,65 milioi €

* Olarizu eraisteko E-XXIek duen dirusailari beste erabilera bat emango zaio

